

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

PASAIKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2021eko urriaren 7an egindako bilkuran, honako ordenantza fiskal honen aldaketari hasierako onespena ematea erabaki zuen, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arteko ondorioekin:

08.03. Jabari publikoaren erabilera pribatiboa.

– % 100eko hobaria ostalaritza-sektoreko terraza eta mahaitxoaren tasan.

Hartutako erabakia eta horretarako abiarazitako espediente jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak jarriko dira eta, era berean, Gipuzkoan gehien irakurtzen diren egunkarietako batean ere argitara emango da, artikuluko horren 2. puntuan ezartzen dena betez. Hori guztia, honako arau hauei jarraituz:

– *Non dagoen ikusgai:* udal honetako Kontu-hartzaitzetan.

– *Aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

– *Erreklama dezaketanak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazten direnak.

– *Erreklamazioak aurkezteko bulegoa:* Udaleko Sarrera Erregistro Nagusia. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazten den lekuetan aurkez daitezke.

– *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udalbatza.

Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko arauzko epea igarota erreklamazio edo iradokizunik jasotzen ez bada, hartutako erabakiak behin betikotzat joko dira, akordio berririk hartzen ibili gabe.

Pasaia, 2021eko urriaren 8a.—Izaskun Gómez Cermeño, alkatea. (6571)

AYUNTAMIENTO DE PASAIA

*Anuncio*

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada el día 7 de octubre de 2021, acordó aprobar inicialmente la modificación de la siguiente ordenanza fiscal con efectos desde el 1 de enero de 2021 al 31 de diciembre de 2021:

08.03. Utilización privativa dominio público:

– Bonificación 100 % de la tasa de terrazas y veladores para el sector de hostelería.

El acuerdo adoptado, y el expediente al efecto instruido se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de edictos de la casa consistorial y también en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa según exige el número 2 del citado artículo, todo ello conforme a las siguientes reglas:

– *Lugar donde se encuentra:* En la Intervención de este Ayuntamiento.

– *Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones:* treinta días hábiles contados a partir del siguiente también hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en horario de oficina.

– *Quiénes pueden interponer reclamaciones:* los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

– *Oficina de presentación:* Registro General de Entrada del Ayuntamiento. También podrán presentarse en los lugares que señala el artículo 16 de la ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

– *Órgano ante el que se reclama:* Ayuntamiento Pleno.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados sin necesidad de nuevos acuerdos.

Pasaia, a 8 de octubre de 2021.—La alcaldesa, Izaskun Gómez Cermeño. (6571)